

EUSKADIKO INDUSTRIAKO HONDAKIN EZ ARRISKUTSUEN INBENTARIOAREN LABURPENA 2012



EUSKO JAURLARITZA

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

Euskadiko Industriako Hondakin Ez Arriskutsuen Inbentarioaren laburpena 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:
<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Edizioa: 2017ko ekaina

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila
www.euskadi.eus

Argitaraldia: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia/San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Edukia: dokumentu hau CIMAS enpresaren kolaborazioarekin egin da

Aurkibidea

1.	HONDAKIN EZ ARRISKUTSUEN SORRERA.....	5
2.	HONDAKIN EZ ARRISKUTSUEN KUDEAKETA.....	6
3.	HONDAKIN EZ ARRISKUTSUEN BANAKETA GEOGRAFIKOA.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
4.	KORRONTE NAGUSIAK.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
5.	2009-2012ko EBOLUZIOA.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
6.	2009-2012ko HEAen PREBENTZIO ETA KUDEAKETA PLANAREN BETETZE MAILA.....	16

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula. 2012an sortutako hondakin ez arriskutsuen korrante nagusiak, HEZen 4 digituko sailkapenaren arabera. Datuak: tonak urteko ¡Error! Marcador no definido.
2. taula. EAEn 2011 eta 2012an sortutako hondakin ez arriskutsuak, HEZaren eta kudeaketa motaren arabera. Datuak: tonak urteko ¡Error! Marcador no definido.
3. taula. EAEn 2011 eta 2012an sortutako hondakin ez arriskutsuak, HEZaren eta jatorrizko lurralde historikoaren arabera. Datuak: tonak urteko ¡Error! Marcador no definido.
4. taula. EAEko 2012. urteko HEAen inbentarioko korrante nagusien sorrera. Datuak: tonak eta %.....12
5. taula. EAEko 2012. urteko HEAen inbentarioko korrante nagusiei aplikatutako kudeaketa. Datuak: tonak eta % ¡Error! Marcador no definido.
6. taula: EAEko 2009-2012 denboraldiko HEAen inbentarioko korrante nagusiei aplikatutako kudeaketa. Datuak: tonak eta % ¡Error! Marcador no definido.

FIGUREN AURKIBIDEA

1. figura. EAEn 2012an sortutako hondakin ez arriskutsuak, kudeaketa motaren arabera. Datuak: tonak urteko.9
2. figura. 2012an sortutako hondakin ez arriskutsuak, HEZaren eta jatorrizko lurralde historikoaren arabera. Datuak: tonak urteko..... ¡Error! Marcador no definido.
3. figura. Hondakin ez arriskutsuen kudeaketa lurralde historikoaren arabera 2012an. Datuak: tonak urteko....11
4. figura. Hondakin ez arriskutsuen sorreraren eta kudeaketaren eboluzioa 2009-2012an.....14

1. HONDAKIN EZ ARRISKUTSUEN SORRERA

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2012. urtean, guztira **2.661.402 tona** industriako hondakin ez arriskutsu sortu dira. 2011 eta 2012. urteen artean izan den urte arteko aldakuntza hondakinen sorreraren %7,7ko beherakada izan da. Batez ere altzairuaren sektorean eta ore eta paper sektorean hondakin gutxiago sortzea izan da beherakadaren arrazoia. Sektore horietan hondakinen sorrera oro har murriztu egin da, eta gainera zenbait enpresatan murrizketa garrantzitsuak izan dira, itxi direlako edo ixteko zorian egon direlako. Hondakin gehien sortzen dituzten jardura taldeak hauek dira: burdinaren eta altzairuaren sektoreak (%32,54), paper-orea, papera eta kartoia ekoizteko eta eraldatzeko sektorea (%35,28) eta burdinazko piezak galdatzeko sektorea.

Hondakin ez-arriskutsuen (HEA) sorrera osoa, Hondakinen europar zerrendaren (HEZ) kodearen arabera, aztertzen badugu, hondakin korronterik gehienek murrizketa jasan dute beren sorreran. Horrek ekarri du HEZen kopuru osoa, 2012an, 2011koa baino txikiagoa izatea. Korronte horien artean HEZ hauek nabarmentzen dira: 03 (zuraren eta paperaren industria), 06 (industria kimiko inorganikoa), 07 (industria kimiko organikoa), 10 (prozesu termikoak), 11 (azalerako eta metalen eta beste gai batzuen gainjanzketaren tratamendu kimikoa), 15 (ontziak) eta 19 (hondakinen tratamendua).

Bestalde, hondakinen beste korronte batzuen sorrera gehitu da 2012an. Hori da, adibidez, HEZ 12 eta 16ren kasua (metalen mekanizatua eta beste hondakin batzuk).

1. taula. 2012an sortutako hondakin ez arriskutsuen korronte nagusiak, HEZen 4 digituko sailkapenaren arabera. Datuak: tonak urteko

HEZ	Deskribapena	Kopurua
1002	Burdinaren eta altzairuaren industriako hondakinak	861.815
0303	Paper-orea, papera eta kartoia ekoiztearen eta eraldatzearen hondakinak	306.362
1009	Burdina-piezen galdaketaren hondakinak	240.614
1912	Beste kategoria batean zehazten ez diren hondakinen tratamendu mekanikoaren hondakinak	232.136
1201	Metalen eta plastikoen azalerako moldaketa eta tratamendu fisiko eta mekanikoko hondakinak	201.438
0301	Zuraren eraldaketaren eta oholen eta altzarien eraldaketaren hondakinak	186.340
1908	Hondakin-uren tratamendu planten hondakinak	159.790
1910	Metalak dauzkaten hondakinak zatikatzearen hondakinak	83.661
1501	Ontziak	67.235
1601	Bizitza erabilgarriaren amaierara iritsi diren ibilgailuak	60.791

2. HONDAKIN EZ ARRISKUTSUEN KUDEAKETA

2012. urtean EAEn 1.424.105 tona HEA birziklatu ziren, hau da, sortutako HEAen %53,5 (2011n %51,8 birziklatu ziren). Hondakindegiko ezabaketa, berriz, 1.085.422 tonara iritsi zen, %40,8 (2011n, %43,2). Joera positiboa den arren, kontuan izan behar da 2011n birziklatzearen joerak atzera egin zuela 2010. urtearen aldean. Laburbilduz, esan dezakegu EAEko 2009-2012ko Hondakin Ez Arriskutsuen Prebentzio eta Kudeaketa Planeko bigarren helburu estrategikoa ez dela bete: %75eko balorizazio materialeko tasa lortzea, tratatu gabeko hondakinen zero isurketa lortuz.

2012an EAEn 145.799 tona HEA balorizatu ziren energetikoki, hau da, sortutako HEA guztien %5,5 (2011n %4,8 izan ziren). Bestalde, lehenbiziko aldiz, inbentarioan HEA konpostajera bideratu ziren hondakinak jasotzen dira, hondakin uren araztegiko lohien 4.364 tona (sortutako guztien %0,2), 2012an sortuak. Era berean, 2012. urtean berrerabiltzeko prestatzeko bideratutako hondakinak 1.712 tona izan ziren (%0,1), 2011ko kopuruaren antzean (%0,1).

2. taulan ikus dezakegunez, suntsitzera bideratutako hondakinen kopurua 2012an txikiagoa da 2011n baino, birziklatutako hondakinekin gertatu denez, baina neurri txikiagoan. Aitzitik, balorizazio energetikorako bideratutako hondakin kopurua apur bat handitu da. Suntsiketa birziklatzea baino gehiago gutxitu denez gero, birziklatze orokorraren portzentajea handitu da, baina birziklatzearen kopuru absolutua apur bat jaitsi da.

2. taula. EAEn 2011 eta 2012an sortutako hondakin ez arriskutsuak, HEZaren eta kudeaketa motaren arabera. Datuak: tonak urteko

HEZ	Berrerabiltzeko prestatzea		Birziklatzea		Konpostatzea		Balorizazio energetikoa		Suntsiketa		GUZTIRA	
	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012
01: Mineralen tratamendua			78						3.508	370	3.586	370
03: Zuraren eta paperaren ind.			308.498	288.049			48.869	45.746	208.169	158.907	565.537	492.702
04: Larruaren eta ehunen ind.			29	7					2.300	1.124	2.329	1.131
05: Petrolio birfintzea									86	195	86	195
06: Kimika inorganikoaren ind.			6.288	1.321			466	400	11.973	1.935	18.727	3.655
07: Kimika organikoaren ind.			8.417	7.432				8	12.700	9.569	21.117	17.008
08: Pinturak, bernizak eta tintak			1.007	1.710					1.088	428	2.094	2.138
09: Argazki industriako hondakinak			33	11							33	11
10: Prozesu termikoen industria			751.056	670.386				928	607.769	514.642	1.358.825	1.185.956
11: Metalen tratamendua eta gainjanzketa			3.164	3.837					2.848	2.030	6.012	5.867
12: Metalen mekanizatuaren industria			149.322	173.784					18.424	27.654	167.746	201.438
15: Ontziak eta trapeak			62.628	47.769			899	1.547	17.522	18.165	81.049	67.481
16: Bestelako hondakinak	1.735	1.712	55.469	63.135			5.549	4.705	12.397	18.801	75.150	88.352
19: Hondakinen tratamenduko industria			148.998	166.665		4.364	84.040	92.466	348.727	331.603	581.765	595.098
GUZTIRA	1.735	1.712	1.494.987	1.424.105		4.364	139.824	145.799	1.247.510	1.085.422	2.884.057	2.661.402

Inbentariatutako hondakinen zenbait korrontek gehienbat tratamendu mota jakin bat jasotzen dute, adibidez:


- Zura eraldatzearen eta ohol eta altzarien ekoizpenaren hondakinetan (HEZ 03 01) eta, zehatzago, zerrautsaren, txirbilaren, moztutako zatien, zuraren, partikulen oholen eta zurezko xaflen hondakinetan (HEZ 03 01 05), eta azalerako eta kortxoko hondakinetan (HEZ 03 01 01) birziklatzea %70ean aplikatzen da. Burdina-metalen hautsak eta partikulak ere (HEZ 12 01 02) eta txatarra osoa oro har (HEZ 120101,992/160214) birziklatu ohi dira.
- Hondakindegira botatzea da ardatzen eta galdaketako burdinurto-moldeen hondakinetan (10 09 08) aplikatzen den tratamendu ohikoena, %69, eta zatikatzeke zati arinetan (fluff-light, HEZ 191004) ere bai, %100.
- Balorizazio energetikoari dagokionez, batez ere hauetan aplikatzen da: hondakinen kudeatzaileetatik datozen erregaien hondakinetan (HEZ 191210) eta plastikoaren eta kautxuaren hondakinetan (HEZ 191204), erabiltzen ez diren pneumatikoetan (HEZ 16 01 03), %22,6, zerrautsaren eta zurezko txirbilaren hondakinetan (030105), %24,7, eta hiriko hondakin uren araztegietako lohietan (HEZ 19 08 05), %57,3.

Birziklatzearen portzentajea gehitu duten korronte nagusiak altzairugintzako zepak, oreko eta papereko lohiak eta, neurri txikiagoan, hiriko hondakin uren araztegiko lohiak dira. Zuraren hondakinek birziklatzearen portzentajeari eusten diote¹. Bestalde, galdaketako haren birziklatzearen portzentajea 2012. urtean murriztu da. Aldakuntza horien justifikazioa laburpen honetako korronte nagusien analisiari buruzko 4. kapituluan aztertu da.

1. figuran kudeaketa motaren araberrako banaketa erakusten da, HEZ kodearen 2 digiturrekin identifikatutako hondakin mota bakoitzerako, 2012. urterako.

¹ Kontuan izan behar dugu zuraren sektorearen 2012ko datuak 2011ko datuetatik eta sektorearen eboluzio ekonomikotik abiatuta kalkulatu direla, baina kudeaketaren kalkulua mantendu egin da 2011. urteari dagokionez.

1. figura. EAEn 2012an sortutako hondakin ez arriskutsuak, kudeaketa motaren arabera. Datuak: tonak urteko



3. HONDAKIN EZ ARRISKUTSUEN BANAKETA GEOGRAFIKOA

HEAen sorreran, lurraldeka sailkatuta, Bizkaia da nagusi, 1.303.491 tonarekin (guztiaren %49,0, 2011n %49,6), eta gero Gipuzkoa, 905.021 tonarekin (guztiaren %34, 2011n %32,5). Araban, berriz, 452.891 tona sortu dira (guztiaren %17, 2011n %17,9). Lurralde banaketa ez da ia aldatu 2011. urtearen aldean.


Hondakin siderometalurgikoak, HEZ 10 kodearekin, gehien sortzen direnak dira, batez ere Gipuzkoan eta Bizkaian. Arabaren kasuan, hondakinak tratatzeko industriako hondakinak dira gehien sortzen direnak. Gipuzkoan eta Bizkaian ere zuraren eraldaketaren industria azpimarragarria da. Eta batez ere Bizkaian hondakinak tratatzeko industriako hondakin asko sortzen dira. 3. taulan eta 2. eta 3. figuretan eboluzioa erakusten da.

3. taula. EAEn 2011 eta 2012an sortutako hondakin ez arriskutsuak, HEZaren eta jatorrizko lurralde historikoaren arabera.
 Datuak: tonak urteko


HEZ	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		GUZTIRA	
	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012
01: Mineralen tratamendua	3.177	67	185	128	223	174	3.586	370
03: Zuraren eta paperaren ind.	25.669	17.080	274.674	237.880	265.195	237.742	565.537	492.702
04: Larruaren eta ehunen ind.	197	630	1.418	494	713	7	2.329	1.131
05: Petrolioaren birfintzearen hondakinak		0	86	195		0	86	195
06: Kimika inorganikoaren ind.	2.406	2.683	5.217	122	11.105	850	18.727	3.655
07: Kimika organikoaren ind.	4.954	4.982	5.749	6.025	10.415	6.002	21.117	17.008
08: Pinturak, bernizak eta tintak	114	132	314	244	1.666	1.762	2.094	2.138
09: Argazki industriako hondakinak		0	33	10	0	1	33	11
10: Prozesu termikoen industria	139.800	112.894	734.846	638.295	484.179	434.767	1.358.825	1.185.956
11: Metalen tratamendua eta gainjanzketa	1.612	1.693	3.515	2.220	885	1.954	6.012	5.867
12: Metalen mekanizatuaren industria	16.722	22.759	72.028	87.796	78.996	90.884	167.746	201.438
15: Ontziak eta trapuak	17.562	14.320	41.101	21.377	22.386	31.783	81.049	67.481
16: Bestelako hondakinak	13.110	18.497	43.410	48.380	18.630	21.475	75.150	88.352
19: Hondakinen tratamenduko industria	289.917	257.154	248.905	260.324	42.943	77.620	581.765	595.098
GUZTIRA	515.240	452.891	1.431.480	1.303.491	937.337	905.021	2.884.057	2.661.402

HEAen sorrera hiru lurraldeetan murrizten da, baina, ehunekotan, murrizketa garrantzitsuena Arabakoa da (-%12), gero Bizkaikoa (-%9) eta azkenik Gipuzkoakoa (-%3).

2. figura. 2012an sortutako hondakin ez arriskutsuak, HEZaren eta jatorrizko lurralde historikoaren arabera. Datuak: tonak urteko



3. figura. Hondakin ez arriskutsuen kudeaketa lurralde historikoaren arabera 2012an. Datuak: tonak urteko



Bizkaiko eta Gipuzkoako birziklatze portzentajeak %55ekoak dira (757.768 tona eta %55,8, eta 486.352 tona eta %53,7, hurrenez hurren). Arabako datuak pixka bat txarragoak dira (209.986 tona eta %46,4), baina kontuan izan behar da hondakin asko birziklatzen dituzten sektoreek (adibidez zura edo prozesu teknikoak eta orearen eta paperaren sektorea) presentzia txikiagoa dutela hemen beste bi lurraldeetan baino. Era berean, hondakinak kudeatzeko sektorea garrantzitsua da Araban. Sektore horrek sortzen dituen hondakinen zati handi bat suntsitu egiten du.

4. KORRONTE NAGUSIAK

Euskal Autonomia Erkidegoko 2014-2020ko Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketa Planaren zirriborroan lehenetsi diren HEAen korronteak analizatzen dira. Haietako gehienak gehien sortzen direnak dira. Korronteetako bakoitzean sortutako kopurua eta 2012an aplikatutako kudeaketa erakusten dira:

- Burdinaren eta altzairuaren industriako zepak
- Txatarra
 - Burdinazko metalen lima hautsak eta txirbilak
 - Txatarraren gainerakoa
 - Txatarra guztira
- Galdaketako hareak
- Oreko eta papereko lohiak
- Hiriko hondakin uren araztegiko lohiak
- Zatikatze zati arina (ZZA)

Sei korronte nagusi horiek EAEn 2012. urtean sortutako HEA guztien %52,7 dira. 10 korronte nagusiak kontuan izaten badira, sortutako kopuruei dagokienez, portzentajea 2012. urtean EAEn sortutako HEA guztien %67 da. Kasu honetan, korronte nagusiei (plan horretako zirriborroan jasoak) ondoko hauek gehitu behar zaizkie: zerrautsa eta zurezko txirbilak, hondakinen tratamendu mekanikotik datozen bestelako hondakinak, kare-lohien hondakinak eta ijezketatiko azala.

4. taula. EAEko 2012. urteko HEAen inbentarioko korronte nagusien sorrera. Datuak: tonak eta %

Korronte zk.	HEZ	Kopurua 2012 (t)	Deskribapena	%, guztia aldean
1	100202	691.300	Altzairugintzako zepak	%26,0
2	120101/992/1 60214	197.261	Txatarra guztira	%7,4
3	100908	181.546	Galdaketako hareak	%6,8
4	030302/05/11	163.583	Oreko eta papereko lohiak	%6,1
5	030105	130.411	Zerrautsa eta zurezko txirbilak	%4,9
6	190805	121.591	Hiriko hondakin uren araztegiko lohiak	%4,6
7	191212	97.980	Hondakinen tratamendu mekanikoetatik datozen bestelako hondakinak	%3,7
8	030309	82.182	Kare-lohien hondakinak	%3,1
9	100210	58.287	Ijezketatiko azala	%2,2
10	191004	52.402	Zatikatze zati arina	%2,0
1 – 10	LK-ak guztira	1.776.543	10 korronte nagusiak	%66,75
Lehenets. korr.	1,2,3,4,6 eta 10. LK-ak	1.407.683	EAEko Hondakin Planeko Zirriborroaren 6 korronte nagusiak	%52,89


5. taula. EAEko 2012. urteko HEAen inbentarioko korrante nagusiei aplikatutako kudeaketa. Datuak: tonak eta %

Korrante zk.	HEZ	Deskribapena	Konpostatzea	Suntsiketa	Birziklatzea	Balorizazio energetikoa	% BAL
1	100202	Altzairugintzako zepak		222.881 (%32,24)	468.419 (%67,76)		67,76
2	120101/992/160214	Txatarra guztira		575 (%0,29)	196.686 (%99,71)		99,71
3	100908	Galdaketako hareak		125.257 (%68,99)	56.289 (%31,01)		31,01
4	030302/05/11	Oreko eta papereko lohiak		39.973 (%24,44)	123.610 (%75,56)		75,56
5	030105	Zerrautsa eta zurezko txirbilak		6.393 (%4,90)	91.777 (%70,37)	32.242 (%24,72)	95,10
6	190805	Hiriko hondakin uren araztegiko lohiak	4.364 (%3,59)	28.987 (%23,84)	18.560 (%15,26)	69.679 (%57,31)	76,16
7	191212	Hondakinen tratamendu mekanikoetatik datozen bestelako hondakinak		97.938 (%99,96)	41 (%0,04)		0,04
8	030309	Kare-lohien hondakinak		64.443 (%78,42)	17.739 (%21,58)		21,58
9	100210	Ijezketatiko azala		11925 (%20,46)	46.362 (%79,54)		79,54
10	191004	Zatikatzeko zati arina		52.326 (%99,86)	76 (%0,14)		0,14
Korrante nagusiak guztira			4.364 (%0,24)	650.699 (%36,63)	1.019.559 (%57,39)	101.921 (%5,74)	67,37

5. 2009-2012ko EBOLUZIOA

Hondakin ez arriskutsuen sorrera gutxitu egin zen 2009 eta 2010. urteetan. Aitzitik, 2011. urtean gehikuntza txiki bat gertatu zen 2010. urtearen aldean (itxura guztien arabera, hura urte berezia izan zen HEAen kontabilitatean). 2012. urtean, berriro ere, hondakin ez arriskutsuen sorrera %7,5 gutxitu zen 2011. urtearen aldean eta %4,7 2010. urtearen aldean. Kudeaketari dagokionez, 2012. urtean balorizazio energetikoak protagonismo handiagoa hartu zuen, eta denboraldi horretan termino absolutuetan %44,16 gehitu zen (balorizazio energetikoaren portzentajea, guztiaren aldean, %63,77 gehitu da). Konpostajea ere bai. 2012. urtean lehen aldiz ageri da kudeaketako alternatiba gisa (zehazki, hiriko hondakin uren araztegietako lohietarako); birziklatzea, aldiz, %25 murriztu da denboraldi honetan. Berrerabilerarako prestaketa jarraitua izan da azken bi urteetan. Horren guztiaren ondorioz, 2009. urtetik 2012. urtera arte suntsiketa %5,89 gehitu da kopuru absolutuetan (portzentajearen, %20,29 izan da). Aitzitik, nabarmendu behar dugu azken urtean, 2012an, suntsiketa %12,47 gutxitu dela termino absolututan (portzentajea %5,38 izan da) 2011. urtearen aldean. Horrela, 2011. urtera arte izandako joerari buelta eman zaio.

4. figura. Hondakin ez arriskutsuen sorreraren eta kudeaketaren eboluzioa 2009-2012an
 Datuak: tonak urteko



HEAen inbentarioa osatzen duten korrante nagusiak kontuan izanik, **6. taulan** eboluzio hau erakusten da 2009-2012 denboraldirako. Kudeaketan joera positiboak daude korrante hauei begira: altzairugintzako zepak, txatarra osoa, oreko eta papereko lohiak, hiriko hondakin uren araztegiko lohiak.

Beste korrante batzuetarako, joera ez da positiboa 2012. urte honetan, hondakindegiko suntsiketak gora egin duelako balorizazioaren aldean. Horregatik, beraien balorizazioa sustatzen duten jarduketak abiatu behar dira, esate baterako, galdaketako hareak, zatikatzeke zati arina, ijzketatiko azala...

6. taula: EAEko 2009-2012 denboraldiko HEAen inbentarioko korrante nagusiei aplikatutako kudeaketa. Datuak: tonak eta %

Korrante nagusiak	2009			2010			2011			2012			
	Sorrera (t)	% birziklatzea	% Balorizazio energetikoa	Sorrera (t)	% birziklatzea	% Balorizazio energetikoa	Sorrera (t)	% birziklatzea	% Balorizazio energetikoa	Sorrera (t)	% Konpostatzea	% birziklatzea	% Balorizazio energetikoa
Altzairugintzako zepak	949.006	%90	%0	910.367	%82	%0	855.600	%59	%0	691.300	%0	%68	%0
Txatarra guztira	246.642	%94	%0	179.070	%87	%0	177.284	%99	%0	197.261	%0	%100	%0
Galdaketako hareak	142.028	%27	%0	133.382	%34	%0	166.194	%34	%0	181.546	%0	%31	%0
Oreko eta papereko lohiak	233.863	%67	%0	221.288	%59	%0	211.428	%59	%0	163.583	%0	%76	%0
Zerrautsa eta zurezko txirbilak	194.645	%87	%11	180.620	%79	%13	144.332	%71	%24	130.411	%0	%70	%25
Hiriko hondakin uren araztegiko lohiak	127.925	%2	%49	139.437	%5	%50	129.269	%13	%57	121.591	%4	%15	%57
Hondakinen tratamendu mekanikoetatik datozen bestelako hondakinak	76.914	%2	%0	70.592	%1	%0	134.686	%0,1	%0	97.980	%0	%0,0	%0
Kare-lohien hondakinak	61.103	%10	%0	85.330	%13	%0	85.502	%15	%0	82.182	%0	%22	%0
Ijezketatiko azala	60.313	%90	%0	75.800	%95	%0	75.992	%83	%0	58.287	%0	%80	%0
Zatikatzeko zati arina	64.780	%0	%0	74.566	%0	%0	65.670	%0	%0	52.402	%0	%0,1	%0
HEAen SORRERA GUZTIRA	3.030.746			2.794.684			2.884.057			2.661.402			
%, HEA GUZTIEN ALDEAN	%71			%74			%71			%67			

6. 2009-2012ko HEAen PREBENTZIO ETA KUDEAKETA PLANAREN BETETZE


MAILA

EAEko 2009-2012ko Hondakin Ez Arriskutsuen Prebentzio eta Kudeaketa Planaren lehenbiziko helburu estrategikoa HEAen sorrera prebenitzea da, gaur egungo ekoizpena egonkortuz. Horregatik, azken urteetan HEAen sorrera modu mailakatuan jaitsi den arren, garrantzitsua da plan horretan aurreikusitako ekintzen abiatzea ez alboratzea, beharrezko eboluzio horrek etorkizunean aurrera jarraitzeko.

Gainera, garrantzitsua da jarduera sektore jakin batzuetako industria-ekoizpenaren eta beraien hondakin ez arriskutsuen sorreraren arteko bereizketa neurtzea, jakiteko HEAak urtero murrizteko arrazoia jarduera ekonomikoetan ezartzen ari diren prozesuen hobekuntzak eta kudeaketako jardunbide egokiak diren, eta ez abagune ekonomikoa. Une honetan hondakin ez arriskutsuen sorreran funtsezkoak diren sektoreen (altzairua, oreka eta papera, eta galdaketa) eboluzio ekonomikoaren datuak eskuratzen ari gara lanean, etorkizunean egiten diren hondakin ez arriskutsuen inbentarioetan aipatutako bereizketa hori neurtu ahal izateko.


Planak berak, 2012. urterako, bete beharreko zenbait helburu ezarri zituen aipatzen ziren hondakin korrante jakin batzuetarako.

Altzairugintzako zepetarako, EAEko 2012ko altzairugintzako zepa guztien **%88a** birziklatuz balorizatzeko helburua ezarri zen. Azken urteko joera positiboa den arren, ez da helburua bete.


ALTZAIRUGINTZAKO ZEPAK (100202)	2009	2010	2011	2012	2012ko helburua	Joera
Balorizazio material edo energetikoa (%)	90	82	59	68	88	

Burdinazko piezen galdaketako haren kasuan, galdaketako haren %80 birziklatzeko helburua ezarriko litzateke. Joera ez da positiboa; 2009-2012 denboraldian zehar okerrera egin da.


EAEn honelako hondakinak tratatzeko azpiegiturak daude. Gaur egun beren gaitasunetik askozaz ere beherago ari dira lanean, eta hondakinok hondakindegian utziz suntsitzen dira.

GALDAKETAKO HAREAK (100908)	2009	2010	2011	2012	2012ko helburua	Joera
Balorizazio materiala (%)	27	30	34	31	80	

Ore eta paper lohien kasuan, honelako lohien (lixiba berdeen lohik / destintatze lohik / efluenten in situ tratamenduko lohik) %90 balorizatzeko helburua ezarri zen. 2012. urtean helburua bete ez den arren, korrante honen balorizazioan nahiko aurreratu da.

PAPER ETA ORE LOHIAK (030302 030305 030311)	2009	2010	2011	2012	2012ko helburua	Joera
Balorizazio material edo energetikoa (%)	67	59	59	76	90	

Zerrautsaren eta zur txirbilien kasuan, honelako hondakinen %100a balorizatzeko helburua ezarri zen. 2012. urtean ez da helburu hori bete, eta gainera joera negatiboa aurkitu da azken urte horretan. Horrenbestez, korrante horretarako kudeaketa optimoa lortzeko lanean jarraitu beharko da.

ZERRAUTSA ETA ZUR TXIRBILAK (030105)	2009	2010	2011	2012	2012ko helburua	Joera
Balorizazio material edo energetikoa (%)	100	98	98	92	100	

Hiriko hondakin urez araztegietako lohien kasuan, EAEko 2009-2012ko Hondakin Ez Arriskutsuen Prebentzio eta Kudeaketa Planak ez dauka berariazko helbururik korrante honetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko 2008-2012ko Lohi Organikoen Kudeaketa Planean jasota ageri baitzen. Plan horretan hiriko hondakin uren araztegietatik datozen lohik nahiz nekazaritzako elikadura industrietako lohik sartzen ziren. Azken plan horretan, 2012. urterako ezarritako helburuak hauek dira:

- Lohien balorizazioa gehitzea, gutxienez %85eraino. Hortik, gutxienez %40 nekazaritzako erabilerara bideratu behar dira, balorizazio energetikoa gehienez %50eraino murriztuz.
- Lohien hondakindegiko suntsiketa gehienez %10 izatea lortzea.

Hiriko hondakin uren araztegietako lohien balorizazio portzentajeak hobetu arren, oraindik ere beraien %23,8a hondakindegian suntsitzen da. Beraz, ez dira ezarritako helburuak lortu. Balorizazio energetikoak ez du asko gainditzen ezarritako helburua, baina nekazaritzarako erabilera oraindik hasi berria da EAEn.

Zatikatzeko Zati Arinaren (ZZA) kasuan, erabiltzen ez diren ibilgailuetatik datorrena, 2012. urterako %90a balorizatzeko helburua ezarri zen. 2012. urtean %0,14 bakarrik balorizatu zen. Korrante hori balorizatu den lehenengo urtea da.